



I. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA
Bizkaiko Foru Aldundia

Ahaldun Nagusia

Bizkaiko Foru Aldundiaren 29/2018 FORU DEKRETUA, martxoaren 6koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2016ko otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretua aldatzen duena; foru dekretu horren bidez, garatu egiten dira Ahaldun Nagusiaren 2015eko uztailaren 2ko 97/2015 Foru Dekretuan Ahaldun Nagusiaren Kabinetearentzat aurrez ikusten diren eskumenak eta eginkizunak.

ZIOEN AZALPENA

Ahaldun Nagusiaren 2015eko uztailaren 2ko 97/2015 Foru Dekretuak Ahaldun Nagusiaren Kabinetea sortu zuen, Ahaldun Nagusiari laguntza emateko organo legez, eta haren menpean zuzen-zuzenean; bada, dekretu horrek honako hau ezartzen du:

«3. artikulua

Ahaldun Nagusiaren Kabineteari ondoko eginkizunak dagozkio, Ahaldun Nagusiari aholkularitza politikoa eta teknikoa emateko organo legez:

- a) Ahaldun Nagusiari behar duen informazio politikoa eta teknikoa ematea, baina foru-diputatuek sailetakoko buru diren aldetik dituzten eginkizunak kontuan hartuta.
- b) Aholkua ematea eskatzen zaizkion gaietan.
- c) Ahaldun Nagusiak agintzen dion edozein txosten, ikerlan edo kudeaketa egitea.
- d) Bizkaiko Foru Aldundiko sailen jarduerak eta jarduteko planak ezagutzea, Ahaldun Nagusiak egin behar duen gobernu-ekintzaren koordinazioa errazteko.

4. artikulua

Betiere, ondoko hauek daude Ahaldun Nagusiaren Kabinetearen menpean:

- a) Komunikaziorako Zuzendaritza Nagusia; Aldundiak komunikabideekin dituen harremanen eta publizitate instituzionalaren eta Web orriarena eta sare sozia-lena ardura du, Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzuak eta jarduera Bizkaiko herritarrengana hurbildu ahal izateko eta Foru Administrazioaren eta herritarren arteko harremana berdinetik berdinerara izan dadin
- b) Kanpo Ekintzako Zuzendaritza Nagusia; Bizkaiko Foru Aldundiaren kanpo harremanak diseinatu, koordinatu eta sustatzearen ardura du.
- c) Bizkaiko Behatokiaren Zuzendaritza Nagusia; arlo hauen ardura du: Foru Gobernuaren arlo ezberdinetatik garatzen diren plan eta ekintzen jarraipenarena eta barruko eta kanpoko kontrolarena; erakundeak herritarrekin dituen harremanena eta herritarrek erakundearen jardunean duten parte-hartzearena; Bizkaiko gobernurako eta lurralderako interesgarriak izan daitezkeen gaien azterketarena eta Gobernuaren arlo guztiek ezarri behar dituzten politikak koordinatu eta zuzentzearena, bereziki gazteriaren arlokoak.
- d) Batzar Nagusiekiko erakunde-harremanak.
- e) Arartekoarekiko erakunde-harremanak.»

Horrenbestez, eta artikulua horiek modu zehatz eta argiagan idaztearren, 2016ko otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretua idatzi zen, 97/2015 Foru Dekretuan jasotakoa garatzeko; hala, aholkuak eman eta kontsultak erantzuteko eginkizuna arautu, Ahaldun Nagusiaren gobernu-ekintza erraztu, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren informazio- eta komunikazio-politika koordinatu nahi zen, Kabinetearen menpe dauden organoak zuzendu eta koordinatzeko, besteak beste.



2016ko otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuak, beraz, Ahaldun Nagusiaren Kabinetearen antolaketa orokorra arautzen zuen, baita eta Kabinetearen menpeko zuzendaritza nagusien eskudantziak ere.

Edozelan ere, Bizkaiko Foru Aldundiak, modu efikaz eta eraginkorragoan antolatzearen Aldundiko sailei dagozkien eskumenak eta eskudantziak, egoki iritzi dio aldatzeari, batetik, Ahaldun Nagusiaren Kabineteari 2016ko otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretua dela bide esleitzen zaizkion eskumenak eta, bestetik, Euskara eta Kultura Sailari 2016ko martxoaren 8ko 42/2016 Foru Dekretua dela bide esleitzen zaizkion eskumenak.

Hain zuzen ere, aldaketa horren ondorioz, Euskara eta Kultura Sailak bere gain hartuko ditu haurren eta nerabeen aisia eta astialdiri eragiten dioten eskumenak, bai eta gizarte-sektoreko entitateekin arlo horretan egin beharreko prestakuntza eta koordinazioa ere. Halaber eragingo die aldaketak aisia eta astialdiaren arlo horretan diharduten entitateen sustapen, bultzada eta laguntzari zein entitateok garatzen dituzten gizarte-hezkuntzako programa, proiektu eta jardueri. Aldaketa horrek aisia eta astialdirako eskola ofizialei buruzko araudiko alderdi hauei ere eragingo die: eskola horien onarpena; eskola horiei ohartarazpenak egitea; onarpena baliorik gabe uztea, eta onarpena kentzeko ebazpenak.

Azaldutako guztiarengatik, eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 17.1.4 artikuluan ezarritakoaren babesean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2018ko martxoaren 6ko bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— *Bizkaiko Foru Aldundiaren 2016ko otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretua aldatzea; foru dekretu horren bidez, garatu egiten dira Ahaldun Nagusiaren 2015eko uztailaren 2ko 97/2015 Foru Dekretuan Ahaldun Nagusiaren Kabinetearentzat aurrez ikusten diren eskumenak eta eginkizunak*

Ahaldun Nagusiaren 2015eko uztailaren 2ko 97/2015 Foru Dekretuan Ahaldun Nagusiaren Kabinetearentzat aurrez ikusten diren eskumenak eta eginkizunak garatzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2016ko otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretua honela aldatu da:

Bat

Honela idatzita geratzen da 1.3 artikulua k) letra:

«k) Komunitate-garapenerako politika zein gazteei lotutako politika koordinatzea.»

Bi

Honela idatzita geratzen da 6.2. artikulua f) letra:

«f) Aldundiko sailek komunitate-garapeneraren arloan zein gazteen arloan duten zeharkako jardunaren definizio estrategikoa eta operatiboa ezartzea, bai eta koordinaziorako beharrezkoak diren egituren sorrera proposatzea ere.»

Hiru

Honela idatzita geratzen da 6.2. artikulua h) letra:

«h) Legediak gazteentzako informazio-zerbitzuak direla-eta aurrez ikusten dituen onarpenak aztertzea eta analizatzea, bai eta onarpenon inguruko ohartarazpenak zein onarpenok kentzeko ebazpenak ere.»

Lau

Honela idatzita geratzen dira 13.3. artikulua f) eta g) letrak:

«f) Aldundiko sailek komunitate-garapeneraren arloan zein gazteen arloan duten zeharkako jardunaren definizio estrategikoa eta operatiboa proposatzea, bai eta koordinaziorako beharrezkoak diren egituren sorrera proposatzea ere.



- g) Bizkai osoan eta bertako eskualde eta udalerrietan gazteei lotuta dauden politika, programa, proiektu, zerbitzu eta ekimenak indartzeko neurriak eta jarduketak kudeatzea.»

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK**Bakarra. — Indargabetutako xedapenak**

Indargabetuta geratzen dira foru dekretu honetan xedatutakoaren aurkako xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK**Lehenengoa. — Erregelamenduz garatzeko gaikuntza**

Ahalmena ematen zaio Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuari foru dekretu honetan ezarritakoa garatu, betearazi eta aplikatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena. — Indarrean jartzea

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2018ko martxoaren 6an.

Ahaldun Nagusia
UNAI REMENTERIA MAIZ